



**Asanbladen
funtzionamenduaren
analisia, botere
harremanak ardatz**



Harremanetarako helbideak:

Twitter: /joxemizumalabe

Facebook: Joxemi Zumalabe Fundazioa

Emaila: harremanak@joxemizumalabe.eus

Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

■ Nortzuk parte hartu dugu tailer honetan?

Lau herrialdeetako gazte asanbladetan lanean dihardugun kide ugari bildu gara gaurkoan asanbladen funtzionamenduaz gogoetatzeko.



Eñaut, Gorka, Aimar, Maria, Alba, Lexuri, Garazi, Yaiza, Ainhoa, Txabi, Jare, Edurte, Amaia, Josu, Jone, Nerea, Enea, Ander, Santutxuko gaztetxea, Jaione, Aimaiur, Lierni, Alain, Amagoia, Ane, Ekiñe, Oier, Mikel, Maider, Laudiko gaztetxe, Deustuko gazte asanblada, Usurbileko gaztetxea, Irati, Unai, Kattalin, Maitane, Peru, Jone, Enara, Leire, Iker, Jaione, Enara, Leire, Iker, Jaione, Teresa, Haizea, ...

■ Nondik abiatu gara?

Martak, Joxemi Zumalabeko kideak, tailerraren egitaraua azaldu ondoren, ezagutza jolas bat egiteko aukera izan dugu. Horretarako, guztiak zutik eta mugimenduan, aldagai ezberdinen arabera taldeak osatuz joan gara. Multzokatze honen bitartez, gorputza erdigunean jartzeaz gain, bildutako taldearen zenbait ezaugarri ezagutzeko aukera ere izan dugu. Hauek izan dira aipatu diren aldagaiak:

- ✓ Herrialdeka,
- ✓ Asanbladan parte hartzen daramagun denbora kopuruaren arabera,
- ✓ Begietako kolorearen arabera,
- ✓ Anai-arreba kopuruaren arabera,

■ Talde gogoeta

Inguruan ditugun kideen berri izan ondoren, lanean hasi gara. Talde txikiak osatu eta honako galdera honi erantzuten saiatu gara:

Zeintzuk dira gure asanbladen egunerokoan identifikatzen ditugun zailtasun edo oztopo nagusiak?

Tailerra: EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	Data: 2016/02/20	Ordua eta iraupena: 10:00-13:00 3 ordu	Tokia: Oñatiko eskolan
--	----------------------------	---	----------------------------------

Azpi-taldeetan, lehenik eta behin, rolak banatu ditugu: aktalaria, bozeramailea eta denbora zaintzailea. Ondoren, bakarka pentsatzeko tartea utzi dugu, zailtasunen erronda egin ahal izateko, eta, ondoren, taldeetan oztipo nagusiak sailkatu ditugu. Hurrengo koadroan, talde txikietan aipatukoak jasotzen dira:

1. Taldea: Lotsa. Zure ahotsa entzuten dela sentitzeko zailtasun. Konfiantza giro eza. Botere harremanak (genero, rangoa errekonozimenduan oinarritutakoa). Inplikazio maila ezberdinak. Motibazioa. Jarraikortasuna. Finean, guztiek dute genero ikuspegiarekin zerikusia.
2. Taldea: Esperientzia handia edo gehiago duen jendea **parte-hartze** handiagoa du eta besteak mugatzen ditu. Pertsona batzuekiko lotura gehiegi. Faktoreak: esperientzia, adina, generoa... Konpromiso falta eta denbora pasata, azkenean, jendeak duen ilusioa itzali egiten da. Arduragabetasuna. Deskoordinazioa. Eredu oso maskulinoa, neska oso gutxi, mikro-matxismoa ematen da. Inkoherentziak ematen dira asanblada barnean. Rola aldatu ahal izatea zaila. Denborarekin etiketak ezartzen dira eta oso zaila da horiek kentzea. Alternatibak eratzea zaila-konpromiso falta. Kontzientziazio eta inizatiba falta. Denbora kontrolatzeko zailtasuna.
3. Taldea: Gazteak erakartzea. Parte hartzea (adina...). Belaunaldi aldaketa. Ekintza ezberdin konpromiso falta. Ideia berriak sortzea. Botere harremanak. Okupatzeko zailtasunak (Bilbon).
4. Taldea: Sartzen (berriak garenean), parte hartze dinamikak zailtasunak. Asanbladak ez dira horizontalak, gutxi batzuen iritzia entzun. Botere ezberdinak (heldutasuna/esperientzia, generoen arabera, konpromiso mailak). Pertsona batzuk "la voz cantante", gehiengo bat bigarren planoan. Hierarkiak markatzen dira. Gainera, bigarren planoan daudenak "marroiak" jan. Konpromiso maila ezberdinen arabera boterea, arriskutsua. Lan batzuetan besteak baino gehiago baloratzen dira. Asanblada handiak direnean, kudeatzeko zailtasunak. Antolaketa ereduak, zaintza lan taldeak dinamizazio kudeaketa. Urte asko funtzionatzen damazkiten asanbladetan egokitze zailtasunak taldearen izaerara. Nostalgia, hasierako helburu, dinamika... espazioa egungo taldeak egin ez badu...Esparru anitza izatean (aberasgarria) helburu ezberdinen artean talkak, lehentasunak...?! Anitza bai, puntu batera arte. Izaera askea izan arren, oso perfil antzeko jendea batu.
5. Taldea: Botere harremanak, bi norabidetan. Batetik, generoari dagokionez, lan banaketan, zaintzan, espazio publikoan, konfiantzan, asertibitatean, eta, bestetik, adina eta esperientziari dagokionez, konfiantzan, hartu beharreko paperetan, konpromiso mailan, estatusen.
6. Taldea: Lehenik, esan beharra dago kategoria ezberdinak botere posizioak eskaintzen dituztela (adina, esperientzia militantea, generoa, asignazio arraziala, gaitasuna diskurtsoa, klasea), eta ondorioz: asanblada eta erabakien monopolizazioa, botere posizioari uko egiteko disposizio eza, eraginkortasunaren mesedetan periferian daudenak ahalduztzeko mekanismo eza. Bigarrenik, asanbladetan lan egiteko prest dagoena baino kide gehiago daude, eta ondorioz, asanbladak haren gaitasunen gainetik erabaki eta lan metaketa eta militanteen erretzea. Azkenik, lanak balorazio ezberdina dute, eta beraz, botere banaketa asimetrikoa (inbisibilizazioa) eta beharizan batzuk besteekiko pribilegiatu, botere harremanak eta elkar zaintza ez kudeatu.

Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

7. Taldea: Konstantzia. Beste eragileekiko menpekotasuna. Formazio falta (teorikoa, teknikoa, globala) esperientzia gutxi. Norberarengan konfiantza falta. Konpromiso falta. Adinaren arabera pisua transmisio falta. Ardurak transmititzeko arazoa (adina). Adinaren arabera hierarkia. Iniziatiba falta. "Sektarismoa" "Kupula". Dinamizazio falta.
8. Taldea: Ardurak banatzeko orduan beti jende berdina. Esperientzi daukanak, lehenengo pausua ematen dute, rol markatuak dituzte. Esperientzia falta, segurtasun falta, inizatiba falta, lotsa (pertsonala). Eskulana esperientziak daukanaren pean gelditzen da eta ez da jende berriarekin kontatzen, eta izatekotan era paternalistan egiteko da. Ez dago parekidetasunik. Botere harremanak existitu egin daitezke baina ez ditugu nabaritzen. Hasi berrientzat zaila da konfiantza dagoen esparruan sartzea. Baita ere hitzaren garrantzia desberdintzen da. Urduritasuna esperientzia daukatenen aurrean. Hizkuntzaren erabilpena, jende berriak zailtasunak ulertzeko. Konfiantza falta. "Beteranoek" ere zailtasunak jende berriari bidea emateko. Pertsonen egoera ez da kontuan hartzen. Ahotsaren bolumena. Konpromiso maila desberdinak onartzeko zailtasuna. GA militantzia eta gazte asanbladako kideen artean tentsioak edo desdoblamentuak.
9. Taldea: genero arazoa. Estatusa (pribilegioak). Egoera emozionalen influentzia. Sekta izaera. Ardura banaketa (delegatze arazoak, komunikazio arazoak, transmisio arazoak). Asanbladak gaztetxeen kudeaketara mugatu.
10. Taldea: Belaunaldi aldaketak eredu gabe gazteegiak (bilatzeko. Lokalak). Komunikazio harremana. Asanbladara mugatu. Botere harremanak: esperientzia eta generoa. Helburuen hausnarketa falta. Gaztetxe eta gazte asanblada oso lotuta. Aniztasuna galtzea. Jende berria sartzeko zailtasunak.
11. Taldea: Gazte konprometituak lortzea. Lan banaketa orekatu bat lortzea. Konpromiso falta. Ezaugarri desberdinak izateak parte hartzen eragin handia dute. Jakintza transmisio falta. Lan banaketa sexista. Ezker abertzaleko mugimendu sozialetik kanpo egoteak sortzen duen "bazterketa". Eraikina vs proiektua.
12. Taldea: Herri bakoitza ezberdina da. Botere harremanak eta honen ondorioak: generoari dagokionez, mutilak erraztasun gehiago parte hartzeko eta presentzia handiagoa dute, eta bestetik, esperientzia aldetik, nik zer dut aportatzeko? Herriari iristeko gaitasun eza. Kuadrilismo guneak. Zuriak ez diren pertsonak parte hartzeko zailtasunak, pertsona migratuak.
13. Taldea: Helburua deskarritatu: jendea hurbiltzeko eta harrera egiteko zailtasunak, komunikazio arazoak, jende gutxi asanbladan, herrian parte hartzeko zailtasunak. Pertsona gutxitan lan asko/delegatzeko erraztasuna. Talde itxia, zailtasuna herrian zabaltzean, gazteetan zabaltzea. Genero aldetik arazoa. Neska bakarra. Asanbladaren funtzionamendua dela eta. Multi-militantzia. Genero arazoa. Lan karga handia jende batzuen gainean. Denboran inplikazio mantentzeko zailtasunak. Belaunaldien haustura. Zaila jendea hurbiltzea. Aisialditik haratago ez, motibazio gutxi. Betikoak joan dira. Jende oso gaztea hurbildu da, nola gestionatu? Barrurako gauza gutxi egiten da. Jendea erretzen da. Belaunaldien haustura. Barne orekaren beharra (barne eta kanpo). Botere harremanak. Arazo juridikoak, asanblada aurrera eramatea, zaila!

■ Asanbladen funtzionamenduan non jarri beharko dugu arreta?

Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

Talde txikien ekarpena entzun ondoren, Joxemi Zumalabeko kideek hitz hartu dute eta asanbladen funtzionamenduen inguruan gogoetatu dutena azaltzeko tarte zabalduta. Hauxe da bertan azaldu diren edukiak:

EHko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketa

Asanbladen funtzionamenduaren analisi, botere harremanak ardatz.

2016ko otsailaren 20a



ZER EGINGO DUGU?

ZER GERTATZEN DA GURE ASANBLADETAN?
ZERGATIK?

HELBURUA:
PENTSATZEA
HITZ EGITEA
IRUDIKATZEA



jendea



Genero-
rolak



Talde-
rolak


Tailerra: EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	Data: 2016/02/20	Ordua eta iraupena: 10:00-13:00 3 ordu	Tokia: Oñatiko eskolan
--	----------------------------	---	----------------------------------

NONDIK ABIATZEN GARA?

- Militantziaren ereduen inguruko gogoeta (Zumalabe).
- Talde harremanak (Marije Apodaka).
- Gatazken kudeaketa (Mabel y Mauge Cañada).
- Genero harremanak gaztetxetan (Pili Álvarez).
- Micropolíticas de los grupos (Traficantes de Sueños).



Bilerak: parte hartzeko baldintzak



Guztiok aukera berdinak ?

Tailerra: EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	Data: 2016/02/20	Ordua eta iraupena: 10:00-13:00 3 ordu	Tokia: Oñatiko eskolan
--	----------------------------	---	----------------------------------

Taldearen arloak: zer aztertu talde batean?

Talde-identitatea, botere-harremanak eta jarduera

Arlo sozioemozionala:


- Identitateak
- Emozioak eta sentimenduak: identifikatu-
ulertu-kudeatu
- Ingurune fisikoa eta pertsonala:
 - talde-giroa
 - elkarren zaintza eta gatazkak
- Parte-hartzaileen ezaugarriak
 - norbere esperientzia
 - bizi-zikloa
 - sexuak, generoak, adina, jatorria...
- Elkarrekintza eta komunikazio-estiloa
- Eduki sinbolikoa: estereotipoak, aurreiritziak

Lanaren arloa:

- Helburuak eta emaitzak: proiektua eta produktuak
- Egiturak: antolatzeko sistema
- Baliabideak: ekonomikoak, pertsonak, guneak...
- Talde-kultura:
 - arau, balio eta pentsamoldeen multzoa
 - botere-, antolatze- eta kontrol-egiturak
- Rolak:
 - Talde-integrazioa eta mantentzea errazten dutenak
 - Taldearen oreka eta lana oztopatzen dituzten rolak
 - Taldearen lana eta proiektua errazten duten rolak
- lan-metodoak

Zer da asanblada?

Asanblada = ekosistema baten tresna



Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

Botere-harremanak sortzen dituzten faktoreak

- Sexu-genero
- Adina
- Esperientzia
- Dedikazioa/denbora
- Kolektiboan betetzen dugun rola
- "Adituak"
- Hezkuntza maila / lanbidea

Botere-harremanak sortzen dituzten faktoreak

- Diru sarrerak, posibilitate ekonomikoa
- Etnia eta hizkuntza
- Hitz egiteko gaitasuna
- Komunikatzeko estiloa eta modua
- Oreka psikologikoa
- Gorputza
- Sexu joera

Botere-harremanak sortzen dituzten faktoreak

Genero-analisiak gizonen eta emakumeen jardunetan eta eginkizunetan hiru alderdi hauek jartzen ditu agerian:

- Genero-arteke parekotasunik eta oreka falta
- Emakume guztiak eta gizon guztiak haien artean ere ez direla berdinak
- Eta azkenik, genero tradizionalak gainditzen dituzten talde sozialak daudela.

Zentzurik badu irauli nahi dugun jendartearen balio hegemonikoen arabera borrokatzea?



Asanblada

Helburua: Taldeka egiten diren lan guztiak komunean jartzea. Egiten dena gero besteekin konpartitzeko dela jakiteak motibazioa sortzen du eta taldean lana egitearen baliagarritasuna garbi ikusten da.

Komunean jartzeak behar duena:

- Taldean aritzea entrenamendua
- Nork bere burua kontrolatzeko abilezia
 - Argi izatea aurretik taldean egindakoa eta komunean jartzen dena.
 - Nork bere barrutik hitz egitea eta ez beste batzuen ahotik.
- Komunikazio eta negoziatorako abileziak: Hitz ematen jakitea, Hitz eskatzen jakitea, Entzuten jakitea.

Komunikazio arauak betetzen ez badira eta aurretik lantzen ez badira, asanbladak boterekeria eta bazterkeriarako bidea izan daitezke.

	Bakarkako lana	Taldeko lana	Asanblada
Helburua	-Hausnartu -Barneratu	-Konpartitu	-Komunean jarri
Beharrezkoa	-Gune pertsonala	-Komunikazio arauak -Antolaketa: rolen banaketa	-Komunikazio arauak -Sintesia -Rolen banaketa
Eraitza	-Nork bere burua estimatzea -Gustura sentitzea	-Protagonismoa -Erantzukizuna	-Motibazioa -Negoziaketan trebatzea

Tailerra: EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	Data: 2016/02/20	Ordua eta iraupena: 10:00-13:00 3 ordu	Tokia: Oñatiko eskolan
--	----------------------------	---	----------------------------------

ASANBLADA BATEN FASEAK

		
PRESTAKETA	EXEKUZIOA	ONDORENGOA
Planifikazioa: -Zein da asanbladaren helburua? -Zer bilatzen dugu? -Zelan lortu dezakegu? -Nortzuei luzatu deialdia? -Nola egingo dugu deialdia? -Non egingo dugu? Nolakoa da lekua? -Noiz egingo dugu? Zenbat denbora behar dugu? -Zein material erabiliko dugu? -Materiala lehenago banandu behar da? Nori? -Zelan hitz egingo dugu? Taldea: -Zenbat eta nolako emakume eta zenbat gizon? -Nortzuk falta dira? -Asanbladetan ohitura dute? -Komunikazio arauak aurreikusi/ezagutzen dira?	-Helburuei, pertsonei, lekuari eta tailer motari dagozkien teknikak erabili. -Aukerak eman: iritzia emateko, pentsatzeko, kolaboratzeko, okertzeko, entzuteko, garen modukoak izateko, ... -Proposamenak, ideiak, adostasunak, emaitzak, ... sustatu, batu eta baloratu. -Esandakoa laburtzen jakitea. -Akta egitea. -Konpromisoa idaztea. -Behatzailea egotea. -Komunikazio-arauak ezagutarazi eta bete Faseak: 1. Hasiera-harrera 2. Aurreko asanbladaren aktaren oniritzia 3. Berriak 4. Txostenen azalpena 5. Gai-ordenaren garapena 6. Amaiera: erabakien sintesia, hurrengo pausuak,	-Lanaren eta emaitzen batuketak: laburpenak, argazkiak, bideoak, fitxak, ... -Lanaren deboluzioa: akta, e-posta, balorazioak, pertsonei eskertu, pendiente geratu dena bideratu, ... -Beharrezkoa izatekotan eta adostuta baldin badago, lanaren zabalpena.



ROLEN ZEREGINAK, ABANTAILAK ETA ARRISKUAK (1/4)

Rola	Zereginak	Arriskuak	Abantailak
Dinamiza-tzaile <i>(Txandaka)</i>	- Puntu klabeak enfokatzeko. - Akordioak lortzen laguntzea. - Gatazketan bitartekari lanak egitea. - Parte-hartzea bultzatuko duten dinamika ezberdinak dinamizatzea	Botere-gune eta erabakigune bihurtzea	Hitzaren monopolioa saihestea. Jarrera dominanteak ikustaraztea.

Iturria: Colectivo La Tortuga. Taller de asambleaismo, facilitación y consenso

Tailerra: EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	Data: 2016/02/20	Ordua eta iraupena: 10:00-13:00 3 ordu	Tokia: Oñatiko eskolan
--	----------------------------	---	----------------------------------

ROLEN ZEREGINAK, ABANTAILAK ETA ARRISKUAK (2/4)

<i>Rola</i>	<i>Zereginak</i>	<i>Arriskuak</i>	<i>Abantailak</i>
Giro behatzaile	Asanblada edo bilerako kideen sentimenduei arreta eskaintzea. Gatazken aurrean giroa lasaitu eta tresna egokiak martxan jartzea.	Behatzaileak eztabaidaren haria galtzea. Gehiegizko dinamizazioa eta naturaltasuna alde batera uztea.	Emozioen kudeaketa lantzea

Iturria: Colectivo La Tortuga. Taller de asamblearismo, facilitación y consenso

ROLEN ZEREGINAK, ABANTAILAK ETA ARRISKUAK (3/4)

<i>Rola</i>	<i>Zereginak</i>	<i>Arriskuak</i>	<i>Abantailak</i>
Ordulari behatzaile	Gai bakoitzari eskainitako denbora kontrolatzea.	Behatzaileak eztabaidaren haria galtzea. Gehiegizko dinamizazioa eta naturaltasuna alde batera uztea.	Gaien arteko oreka mantentzea. Gai ordena beteko dela ziurtatzea.

Iturria: Colectivo La Tortuga. Taller de asamblearismo, facilitación y consenso

ROLEN ZEREGINAK, ABANTAILAK ETA ARRISKUAK (4/4)

<i>Rola</i>	<i>Zereginak</i>	<i>Arriskuak</i>	<i>Abantailak</i>
Aktalari	Akta jaso: erabaki, ekintza, konpromiso, data eta beste datu garrantzitsuak. Koaderno edo libreta batean biltzea komenigarria da.	Aktalariak eztabaidaren haria galtzea	Asanblada modu antolatu eta egokian aurrera eramatea, erritmoa ematea

Iturria: Colectivo La Tortuga. Taller de asamblearismo, facilitación y consenso

Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

KONTSENTSUA, AKORDIOA ETA ERABAKI EZ BAZTERTZAILEAK GAUZATZEKO TRESNAK



18

Kontsentsua, akordioa eta erabaki ez baztertzaileak gauzatzeako tresnak

TRESNAK	
Barneko eguraldia	Masajeak
Eguneko gai-ordena	Bozketa indikatiboa edo sondeoa
Erronda	Ideien borroka libre
Ideia zaparrada	Sentimenduen erronda
Bikoteka banatzea	Isiluneak

Iturria: guk geuk sortua
+ bestelako dinamikak

Asanbladak: dinamizatzailea

Bileran edo asanbladan

ARGITU

- Bileraren helburua argitu
- Helburuarekin bat
- Elkar ulertzea bideratu.
- Birformulatu.
- Hierarkiak ekidin
- Gidaria izan

KONTROLATU

- Erabakitako lan-metodoa egiten lagundu.
- Jardun-arauak zehazten lagundu.
- Mugak zehaztu
- Isilik dauden pertsonak estimulatu, isiltzen ez direnak isilarazi.
- Denbora kudeatu

ERLAXATU

- Elkarrekintzaren antsietatea gutxitu
- Konfiantza-giroa sortu, eta umorea erabili.
- Konfliktuei erreparatu baina bileratik kanpo bilatu noiz eta nola
- Laguna izan.
- Sentimenduak adierazteko bidea eman

DINAMIZATU


- Taldekideen motibazioa handitu jardueran
- Estimulatu
- Bidean egon daitezkeen beste helburu txikiak proposatu
- Lantaldeak aurreikusi: nortzuk, zertarako, nola




Tailerra: EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	Data: 2016/02/20	Ordua eta iraupena: 10:00-13:00 3 ordu	Tokia: Oñatiko eskolan
--	----------------------------	---	----------------------------------



Espazioa eta jendea



Asanbladak eta denbora



MILESKER!!

harremanak@joxemizumalabe.eus



Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

■ Kasu praktikoen gaineko gogoeta

Zumalabekoen azalpena entzun ondoren, kasu praktikoen gaineko ariketa bat egin dugu. Oraingo honetan, ere lau talde egin ditugu eta bakoitzak kasu zehatza bana jorratu dut:



1. Kide veterano bat ez da azken hilabeteetan asanbladara etorri, eta gaurko asanbladan parte hartzea erabaki du, baina segituan alde egin du. Asanbladaren helburua: Gaztetxearen urteurrenean egingo den egitaraua prestatzea.
2. Urteurren borobila gaztetxean, hainbat kideren artean hartutako erabakia gutxi batzuen ardura bihurtu.
3. Lanen banaketa eta ikusgarritasuna. Urteurreneko kartelaren afera.
4. Auzolan deialdia dago gaztetxean, hainbat zereginen artean eszenatokia konpontzea erabakitzen da. Animatzen direnen artean gehienak gizonezkoak dira.

Asanbladan gertatu ohi diren kasu hauek izan ditugu aztergai rol playing bakoitzean. Antzerkia amaitu ondoren, dinamizazioaren eta irudikatu diren rolen inguruko balorazioa eta gogoeta egin dugu. Zer dugu hobetzeko? Zein da dinamizatzaileraren papera? Nola kudeatu denbora? Heldu berri direnen harrera nola egin? eta beste hainbat gai aipatu dira talde txikietako plenarioan.

■ Amaitzeko saioaren balorazioa

Ez dugu aukerarik izan idatzizko balorazioa egiteko, eta dianaren dinamikaren bitartez ahoz egin dugu. Orokorrean, gustura egon gara, eta hobetzeko gauzen artean espazioa falta aipatu da. Era berean, jende kopuruaren arabera, hainbat dinamika aurrera eramateko zailtasunak izan ditugu.

Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan



■ Bibliografia

Bibliografia:

Álvarez Moles, Pili (2012). Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en Euskadi.

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf

Colectivo Alianza Rebelde (2009). Taller de asamblearismo, faclitación y consenso. <http://argentina.indymedia.org/news/2011/11/801507.php>

Escorihuela 'Ulises', José Luis (2015). Modelo de efectividad grupal. <http://www.facilitacion.org/wp-content/uploads/2015/09/Modelo-efectividad-grupal.pdf>

Joxemi Zumalabe (2014). Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen. <http://joxemizumalabe.eus/gogoeta/>

Martínez López, Miguel Ángel eta Lorenzo Vila, Ana Rosa (2005). Asambleas y reuniones. Metodologías de autororganización. Madril: Traficantes de Sueños <http://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Asambleas%20y%20reuniones-TdS.pdf>

Vercauteren, Davd, Müller, Thierry eta Crabbé, Olivier (2010). Micropolíticas de los grupos. Para una ecología de las prácticas colectivas. <http://www.traficantes.net/libros/micropoliticas-de-los-grupos>

Lotura interesgarriak:

<http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/genero-rolak-gaztetxe-eta-gune-autogestionatueta>

http://www.berria.eus/paperekoa/1984/040/001/2015-11-15/gaztetxeak_kultur_arnasgune.htm

Tailerra:	Data:	Ordua eta iraupena:	Tokia:
EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa	2016/02/20	10:00-13:00 3 ordu	Oñatiko eskolan

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf

<http://www.facilitacion.org/>